

MUSIKA ▶

Hemen da 'Ordizia Kantuz'

Hitzaro Euskara Elkarteak kontzertu ugari antolatu ditu hurrengo asteetarako

MAIDER DEL OLMO

Estilo desberdinetako bost musika emanaldi antolatu ditu Hitzaro Euskara Elkarteak *Ordizia Kantuz* ekimenaren barruan. Lehenengo kontzertua, Asier Serranorekin, bihar izango da, 19.30ean, Barrena kultur etxean.

Hitzarokoek azaldu dutenez *Ordizia Kantuz*-en helburua euskarazko kultur eskaintza aberastea da: «Kontua da euskaldun zaharren sarea zaindu eta indartzearekin batera, euskara bigarren hizkuntza gisa eskolan ikasi duen euskaldun berriari duen hizkuntza-ezagupena sendotzen, euskal kulturaren aberastasunaz jabetzen eta bere harreman sarea zabaltzen lagundu behar zaio-lan», diote Hitzaroko kideek.

Kantu-afaria

Kontzertuez gain kantu-afaria ere egingo dute plazan, urriaren 20an. Aurtengoa VII. Kantu Afaria izango da. Helburua lagun giroan bildu eta euskal abestiak kantatzeko ohitura

KONTZERTUAK ▶

Emanaldi denak ostegunetan izango dira, Barrena kultur etxean, arratsaldeko zazpiak eta erdietan; Kantu Afaria izan ezik, ostiralez egingo dute plazan (urriaren 20an). Egun horretan afari-legearen ondoren izango da kontzertua.

BIHAR

Asier Serrano. Lorelei musika taldea gidatu zuen eibartarrak bakarlari gisa emango du kontzertua.

IRAILAK 28

Arima Beltza. Blues eta rock estiloa lantzen duen taldearen emanaldia.

bultzatzea da. Aurtengo afalostea Pantxoa eta Peio abeslariak girotuko dute. Sagardo kupela ere izango da.

Antolatu dituzten kontzertuak kalitatezkoak eta estilo anitzekoak dira, antolatzaileen arabera. Ordizia Kantuz ekimenaren egitarauaren 3.600 ale banatu dituzte etxex etxe eta



Asier Serrano.

kartelak ere jarri dituzte Goierriko herri desberdinetako hormetan.

«Emanaldiak, egitaraua, kartelak... horrek guztiak kostu handia ekarri dio Hitzarori; gutxi gorabehera 12.000 eurokoa. Eta gastuei aurre egin ahal izateko babesleen eta laguntzaileen bila aritu gara, ate

URRIAK 5

Anari. 'Zebra' azken laneko kantak joko ditu Azkoitiko bakarlariak, beste batzuen artean.

URRIAK 12

Atomoog. Trip-hop, elektronika eta rockaren arteko nahasketa berezia egiten duen taldearen kontzertua.

URRIAK 20

Pantxoa eta Peio. Kantu afaria izango da, bi abeslariekin.

▶ 20:30ean, afari-legea (txorizo ogitartekoak eta sagardo kupela).

▶ 22:00etan, kontzertua.

joka», azaldu dute Hitzarotik. Erantsi dutenez, «ahalegin handia egin dugu, bai antolatzaileok, bai babesleek eta laguntzaileek ere. Horregatik, erantzuna ere maila berekoa izatea nahiko genuke».

Jendeari kontzertuetara joateko gonbidapena luzatu diete euskara elkarteok.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Garraio publikoa Oianguraino!

Oiangu Publikoa eta Bizirik plataforma bat dator irailaren 16tik 22ra Europa osoan ospatzen ari den Mugikortasun Astearekin, aldaketa klimatikoaren aurka. Europako Batasuneko aldaketa klimatikoa sortzen duten emisioen %10 baino gehiago hiri barneko trafikoak sortutakoa da.

Hori dela eta, jakinda Ordiziako Udala mugikortasun iraunkorraren alde ari dela

aste honetan, ordiziarrei eta goierriarrei gogoratu nahi diegu Udala honek golf, *paintball* eta igerilekuarekin batera, Oianguko parkearen barruan aparkalekuaren eraikuntza agindu zuela. 2005eko uztaileko 1. udal aldizkarian Oianguko proiektuaz argitaratu zuen monografikoan. Neurri hori mugikortasun iraunkorraren aurkakoa da, horren arabera autoaren erabilpena gutxitzea bultzatzen baita eta garraio publikoa edo bestelako garraioen erabilpena sustatzea, hain zuzen. Ordiziako Kaskoa peato-

nalizatu eta gero. Plaza Nagusiaren inguruan Udalak orain aparkaleku eraikitzea bezala izango litzateke Oiangu parkearen barnean aparkaleku eraikitzea, parkera espazio seguru baten bila doazen haurrentzat arriskua handituz, zarrata eta kutsadura gehiagotuz, zuhaitz mozketak eraginez, e.a. Horregatik guztiagatik, Plataforma honek Udalarri eskatzen dio irailetik aurrera garraio publiko zerbitzua martxan jartzea mugikortasun arazoak dituzten pertsonak Oiangura joan daitezkeen eta na-

turguneaz goza dezaten, eta ez golfa, *paintball*-a... egin eta gero zerbitzu hori martxan jarri, Udalak berak 2005eko aldizkarian adierazi zuen bezala.

Ordiziako Udala benetan mugikortasun iraunkorraren alde baldin badago, zerbitzu horrek jadanik martxan behar luke, bestela Oianguko golf, *paintball* eta abarren proiektuari herritarrek euren babesa emateko txantajea besterik ez dela pentsatuko dugu.

PATXI URANGA ▶

OIANGU PUBLIKOA ETA BIZIRIK (ORDIZIA)

GIZARTEA ▶

Mobila erabiltzen ikasteko kurtsoa jubilatuentzat

Gaur ikastaroa emango dute jubilatuak elkartearen mobila erabiltzen irakasteko. Ikastaroak 3 euro balio du eta arratsalde izango da, 16.30etik 19.30era. Gehienez 10 pertsonaz osatutako taldea izango da. Izena emateko lehenbailehen deitu zerbaki hauek batera. 943 88 92 88 (jubilatuak elkarteak) edo 943 80 56 10 (Gizarte Zerbitzuak). Bestalde, irailaren 26an oinarritzko informatikari buruzko beste ikastaro bat eskainiko dute eta izena emateko epea zabalik dago.

JAIA ▶

Kilometroak jaira joateko autobusa dago

Oiartzunen ospatuko dute aurtun, urriaren 1ean, ikastolen aldeko Kilometroak festa. Hara joateko autobusa antolatu du Hitzaro elkarteak. Txartelak Mujika liburudendan eskuratu daitezke 7 euroren truke (bazkideek 5 euro). Txartelak erosteko azken eguna irailaren 27a da.

ARTEA ▶

Herrerasantzat da Urdanetaren logotipo lehiaketa

Orduñan bizi den Carlos Herrerak Loberaren logotipoa aukeratu dute Andres Urdanetaren 500. urteurrena ospatzeko erabiliko duten irudi bezala. *Aurkitzailea* izena du logoak eta 2.000 euroko saria irabazi du Herrerarekin. Udaletik azaldu dutenez, guztira 72 lan aurkeztu dituzte lehiaketara.

GIZARTEA ▶

Boluntarioak hezteko ikastaroa dago

Lahar-ek antolatuta (Eskuhartze psikosozialerako elkarteak), adineko pertsonen egoteko boluntarioak hezteko ikastaroa emango dute. Ikastaroa urriaren 23tik 27ra bitartean izango da eta epea zabalik dago izena emateko. Zerbaki hauek deitu daitezke: 665 718 695 eta 943 47 41 82.

hitza

GOIERRIKO HITZA k banatzaile/buzoneatzaileak behar ditu Goierriin.

LAN-BALDINTZAK :

- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 9etatik 13:00etara.
- Astean sei egun. Asteartetik igandera.

Interesatuak 943303555 telefonora deitu.



KULT. 34 94 344 D 102 163 40 7460 E 046164